

“Indarra elkartasunean dago”


Hilabete baino gehiago igaro da ikasturtea hasi zenetik, eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek uste du beharrezkoa dela egoeraren balorazioa egitea eta hausnarketa batzuk ematea.

Errealitate berriak agerian utzi du garrantzitsua dela komunitate osoa inplikatzeko hezkuntza-erronkei erantzuteko.

Adostasun sozial zabala dagoela eskolaren garrantziari buruz eta *presentzialtasuna* eta *prebentzioa* uztartzeko beharraz egiaztatu dugu.

Baita ere autonomia-erkidegoko ikastetxe guztiak hasi izana eta gaur egun guztiak irekita jarraitzea ospatzen dugu. Ikusi dugunez ere eskola-eremuko eragina nahiko txikia izan da, pandemiaren bilakaeratik harago, honako grafiko honetan ikus daitekeen bezala:

Euskadiko ikastetxeetan Covid-19k duen eragina. Hezkuntza sailaren datuak.



(2020-2021 ikasturtean, Euskal Hezkuntza Sistemak 17.554 ikasgela ditu guztira (2 urtetik unibertsitaterik kanpoko derrigorrezko hezkuntza ondoko mailetaraino))

Hala ere, pandemiak hezkuntza-desberdintasunetan izan dituen ondorioak oso handiak izan direnez, eta ikasleen sektore garrantzitsu batek ikasturte berriari ekiteko gaitasunak eta ikasteko ohiturak galdu dituzenez, funtsezkotzat jotzen dugu ahalegin eta baliabide teknologiko, giza baliabide eta pedagogiko guztiak jartzea, ikasle GUZTIEI kalitatezko hezkuntza bermatzeko, ager daitekeen edozein egoeratan.

Egiaztatu da, orain arte, ikastetxeetan jarraitutako osasun-prebentzioko estrategiak ondo funtzionatu duela, eta hori pertsona askoren erantzunkidetasunari eta ahaleginari esker izan da; izan ere, pertsona horiek hezkuntzarako eskubidea bermatzen dute eta horrela eskolari, ikasteko, sozializatzeko eta desberdintasunak konpentsatzeko funtsezko espazio gisa duen funtzioari eusteko aukera ematen diote:

- Positiboki baloratzen dugu hezkuntza-komunitate osoak egindako ahalegina, eta eskerrak ematen dizkiegu ikasleei arauak betetzeko duten erantzukizunagatik, familiei egokitzeko gaitasunagatik eta, batez ere, irakasle-taldeekiko lankidetzaz eta konfiantzagatik.
- Ikastetxeetako irakasleak eta langile guztiak aintzatesten eta balioesten ditugu, egiten duten lanagatik, enpatiaz, pazientziagatik, malgutasunagatik eta sormenagatik, batetik, ikasleen hezkuntza-premiei erantzuteko, eta, bestetik, aurkezten zaizkien osasun-prebentzioaren ondoriozko eskakizun guztiei erantzuteko. Zailtasun guztien gaitasunetik klaustroek aparteko egoera honi aurre egiteko konpromisoa erakutsi dute.
- Ikastetxeetako zuzendaritzak zoriondu nahi ditugu, zalantza eta zailtasun handiak izan baitituzte, eta gai izan baitira hain testuinguru konplexuan irakasle-taldeak gidatzeko eta ikastetxe bakoitzerako irtenbiderik egokienak eta bideragarrienak aurkitzen saiatzeko: espazio berriak sortzeko eta kudeatzeko, jantokiak ausart eta malgutasunez antolatzeko, eskolak eta denborak berrantolatzeko, edo irakasleak eta familiak kudeatzeko modu berrietan. Prozesu guztietan zuzendaritzen inplikazioa eta ebazpena funtsezkoa izan da.
- Era berean, eskertzekoa da hezkuntza-administrazioak egin duen ahalegina, duela gutxi errefortzuko irakasleak kontratatu baititu eta hezkuntza-komunitatearen beharrei erantzuteko prest baitaude, nahiz eta une zaila izan.

Bestalde, pandemia luzea eta konplikatu ere egin daitekeenez eta ahalegin luzea eskatu, hezkuntza-komunitate osoari eskatzen diogu eskuzabaltasunez, enpatiaz, lankidetzaz, elkarrekiko zaintzaz eta erresilientziaz joka dezala.

Era berean, beharrezkoa da Hezkuntza sailak zuzendaritza-taldeein laguntza berezia ematea, ikastetxeen zama burokratiko ahalik eta gehien apaltzea eta ikasle guztiei arreta egokia emateko baliabide egokiak ematea.

Azkenik, egungo egoerak agerian utzi ditu hezkuntza-sistemaren egiturazko arazoak (ekitatea, euskara, metodologia, ebaluazioa, azpiegiturak...), beraz arazo horiei aurre egiten eta pandemiatik haratago hezkuntza eraldatu eta hobetzeko lana egiten jarraitu beharko dela.

Bilbo, 2020ko urriaren 28a.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra.